

## BIZIA EGINBEARRA DA

Ona, berez, eginkorra da, argia, beren izatez, dizdiratzaillea. Emen daukagu gizakumea, zer izan bear dabenaren, irudi garbala, eragin-korra. Burudun gizakumeak bere barnean daroa erantzukizunaren zentzuna. Berez, gorputzak azi ta zabaldu eginbear dau ta gogoak argitu ta zurtu ta erantzupendun biurtu.

Giz-adimenak bere aurrean daukaz lurra, itxasoa ta aidea. Iru puntu onek bear-bearrezkoak ditu bere bizitzarako. Ta ain zuzen bere sorreran lur ori menperatu ta giza-seme-alaba legez bizi toki egoki biurtu bear dau.

Lurra menperatzeko agindua, beren sorreratik dauka giza-semeak. Baiña zeure bekoki izerdiz ogia jango dozu. Emen dagoz ba begien aurrean lurra, almenak eta aginduak.

Lurra zabala da, ta berez, sasia, oparo, eskeintzen dau. Urre, zidar, arrolio, burdin arrikatz, burdin-gorri, ondo gordeta dagoz lurraren babesean. Lurraren sorreran edergallu guzti onek lurreko biztanleentzat itzi zituan Egilleak. Arrezkero gizonak landu egin bear ditu beren almenak.

Ume arotik asiko da ikastolara argibidea emonez buruari. Gure iparra, or, dago ta iparraldea, beti, laiñoz josita ba-dago, ez daukagu bizikera jatorrik. Gure izatearen egokitasunak, buru lantzea agindu egiten dau, gau eta eguna, illuna ta argia aldiaren esnatzaille diran lez, gizona, aurrean, daukan zuloan jausiko ez bada, argia biztuta, burua argituten ibili bear dau.

Lenengo arazoa da ba, giza-semearen argi almena kruzelu gaiñean, ondo, erabiltea, norbere erruz, amiltegira ez jausteko ta bizia menperatzeko.

Giza-semeak ba-dau beste almen zoragarriko bat, naimena deritxona. Bizia orniduta etorri zan gizaldira, baiña almen bikain onek lo-zorroan egozen gizonarengan. Ta lanak

eskatzen daben eran, biotza gerturik ez badago, ergelkeri ta zorakeri aundiak egiteko, arriskuan, dago giza-semea. Lanak eta aurrerapideak, ondo, eroan al izateko, buruak biotzaren laguntasun beroa ta neurritzkoa bear ditu.

Burua ta biotza, ondo, gerturik dagozanean, lurreko arazoei ekin bear jake. Biziak esaten dau, gizona ta bere almenak ez direla alperkerirako, biziak eskatzen dau lurra, itxasoa ta aizea menperatu bear direla osasuna indartze-ko... Bizi al izateko, biziak eskatzen ditu buru argitasun eratua, biotz sendotasun neurtua, ta eraren baten, euskal giroan esateko atxurra eskuan.

Giza-semea almen ederrez orniturik, alperrik etzan lurrera etorri... Aita baten seme-alaba legez, lege bardiñen barruan, bardintasun geiagoren bidez anaitasuna sortu bear da. Au da zeruaren deia, au da lurraren karrazia, bizia egi biurtzea gizadiaren onean. Uxa arrokeriak, uxa aundikeriak, uxa ezpata ta arma iltzailleak... ta betor bakezko bizia.

PAULIN

